

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

HERNANIKO UDALA

Iragarkia

Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Araua erregutzailearen eraginez eta horrekin bat eginez, jendaurrean jartzeko epea igarota, behin betikoa egin da 2022ko irailaren 27ko Udaleko Osoko Bilkurak hartutako hasierako Zerga Ordenantzen aldaketaren akordioa. Aldaturiko testu osoak honela dio:

Administrazio zerbitzuak emateagatik edo udal jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko Ordenantzaren eranskin berri bat onartzea: Udal langileak hautatzeko prozesuetan izena eman ondorengo jarduerak burutzeagatik, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA argitaratu eta hurrengo egunetik aurrerako ondorioekin, ondoko testua da:

I. XEDEA

1. artikulua. Zergapeko egitea.

Udal ordenantza honetan hauxe da tasaren zergapeko egitea: Hernaniko Udalak deitutako hautaketa-prozesuetan parte hartzea eskatzen dutenen artean langile funtzionarioak eta laboralak hautatzeko -bai plazak behin-behinean edo behin betiko betetzeko dela, bai lan-poltsak eratzeko dela- gauzatzen den jarduera teknikoa eta administratiboa, Lurralde Historikoko toki-ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraikiz.

2. artikulua. Eremu aplikagarria.

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. SUBJEKTU PASIBOAK

3. artikulua.

Aurreko artikuluan aipatzen diren hautatze-probetan izangai gisa izena ematea eskatzen duten pertsona fisikoak dira tasaren subjektu pasiboak.

Ez dute subjektu pasiboaren izaerarik eta, beraz, ez daude tasa honetara loturik, karrerako funtzionario izaera edo lan-kontratudun finkoaren izaera edukita barne-sustapenetako hautaketa-prozesuetan hautagai gisa izena ematea eskatzen dutenek edo lanpostuak behin betiko hornitzeko diren lehiaketetan edo beste deialdi batzuetan parte hartzen dutenek.

III. TASA SORTZEA ETA ZERGALDIA

4. artikulua.

Tasak ordaintzeko betebeharra:

1. Tasaren sortzapena hautatze-probetan izena ematea eskatzen den unean sortuko da.

2. Izena emateko eskaera hori ez da izapidetuko tasaren zenbatekoa Ordenantza honetako aurreikusitakoren baldintzen arabera ordaintzen ez den bitartean.

AYUNTAMIENTO DE HERNANI

Anuncio

De conformidad con lo establecido en la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, una vez transcurrido el plazo de exposición al público del acuerdo provisional adoptado por el Pleno de la Corporación en fechas 27 de septiembre de 2022, se acuerda elevar a definitiva, la modificación de las Ordenanzas Fiscales, publicándose el texto íntegro del acuerdo adoptado.

Aprobar un nuevo anexo a la Ordenanza reguladora por la prestación de servicios administrativos o la realización de actividades municipales, con los efectos siguientes a la publicación del BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, por la realización de las siguientes actividades derivadas de la inscripción en los procesos de selección del personal municipal, con el siguiente texto:

I. OBJETO

Artículo 1. Hecho imponible.

En esta ordenanza constituye el hecho imponible de la tasa la actividad técnica y administrativa conducente a la selección del personal funcionario y laboral, bien para la cobertura provisional o definitiva de plazas, bien para la conformación de bolsas de trabajo, entre quienes soliciten participar en los correspondientes procesos de selección convocados por el Ayuntamiento de Hernani, conforme a la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

La presente Ordenanza será de aplicación en todo el término municipal.

II. SUJETOS PASIVOS

Artículo 3.

Son sujetos pasivos de la tasa las personas físicas que soliciten la inscripción como aspirantes en las pruebas selectivas a las que se refiere el artículo anterior.

No poseen la condición de sujetos pasivos y, por lo tanto, no quedan sujetas a la presente tasa, aquellas personas que, ostentando la condición de funcionarios/as de carrera o personal laboral fijo, soliciten la inscripción como aspirantes en los procesos selectivos de promoción interna, o participen en concursos u otras convocatorias dirigidas a la provisión definitiva de los puestos de trabajo.

III. DEVENGO DE LA TASA Y PERIODO IMPOSITIVO

Artículo 4.

Obligación de pago de tasas:

1. El devengo de la Tasa se producirá en el momento de la solicitud de inscripción en las pruebas selectivas.

2. Dicha solicitud de inscripción no se tramitará mientras no se haya hecho efectivo el importe de la tasa, en los términos previstos en esta Ordenanza.

IV. ZERGA KUOTA

5. artikulua.

Honako zerga-kuota hauek ezarri dira:

a) 10 € dagokion Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartu diren plantilla organikoko plazak, dela karrerako funtzionario gisa dela lan-kontratudun finko gisa, behin betiko estaltzeko hautaketa-probetan izena emateko eskaera gertatzen denean.

b) 10 € lan-poltsak osatzeko edo bitarteko langileak edo aldi baterako lan-kontratudunak hautatzeko egiten diren hautaketa-probetan izena emateko eskaera gertatzen denean.

V. HOBARIAK

6. artikulua.

Kuotaren zenbatekoaren % 50eko hobaria aitortzen zaie honako egoera hauetakoren batean dauden interesatuei:

1. Langabezia-egoeran daudenei. Hobari hau aplikatzeko, eskatzaileek egiaztatu beharko dute aipatutako hautaketa-prozesuan eskabideak aurkezteko azken egunari dagokion datan legezko langabezia-egoeran daudela eta Lanbide Zerbitzuan edo beste enplegu-zerbitzu publiko batzuetan enplegu-eskatzaile gisa alta emanda daudela.

2. Genero-indarkeriaren biktimei. Hobaria aplikatzeko, subjektu pasiboak ebazpen judiziala edo biktimaren alde emandako babes-agindua aurkeztu beharko du, edo, halakorik ezean genero-indarkeriaren biktima izatearen zantzuak daudela adierazten duen Fiskaltzaren txostena, babes-agindua eman arte, edo izaera hori egiaztatzen duen beste edozein agiri, arlo horretan indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.

3. % 33ko aniztasun funtzionala edo handiagoa duten pertsonen. Hobari hori aplikatzeko, subjektu pasiboak dagokion autonomia-erkidegoak emandako aniztasun funtzional-maila egiaztatzen duen txartela aurkeztu beharko du.

4. Guraso bakarreko familietako kideei. Hobari hau aplikatzeko, guraso bakarreko familia bateko kide dela egiaztatu beharko du subjektu pasiboak, honako agiri hauetakoren baten bidez:

– Familia-liburua, guraso bakarra eta haren seme-alabak jasotzen dituen.

– Familia-liburua, seme-alabak jasotzen dituen, eta banantzeari, dibortzioari, deuseztasunari edo gurasoen eta seme-alaben arteko harremanei buruzko epai judiziala, betiere konpentsazio-pentsioetan edo mantenu-pentsioetan ezartzen ez badira, edo, hala ezarrita bada, epai, salaketa edo demanda bidez egiaztatzen bada ez direla ordaindu.

– Nolanahi ere, familia-errolatzearan ziurtagiria aurkeztu beharko da, beste guraso batekin edo guraso-bikotekidearekin (ezkontzako edo izatezko) bizi ez dela egiaztatzen duena.

5. Familia ugariak babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legean eta horrekin bat datozen gainerako arauetan ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean familia ugariako kide diren subjektu pasiboek hobaria izango dute tasa honetan, baldintza hauetan:

– Kategoría orokorreko familia ugariak.

– Maila bereziko familia ugariak.

Hobari hori aplikatzeko, subjektu pasiboak eskumena duen organoak emandako familia ugariaren indarreko txartelaren ziurtagiria edo fotokopia aurkeztu beharko du.

IV. CUOTA TRIBUTARIA

Artículo 5.

Se establecen las siguientes cuotas tributarias:

a) 10 € cuando se produzca la solicitud de inscripción en pruebas selectivas destinadas a la cobertura definitiva de plazas de la plantilla orgánica que hubieran sido incluidas en la oferta de empleo público correspondiente, ya sea en calidad de funcionario/a de carrera o de personal laboral fijo.

b) 10 € cuando se produzca la solicitud de inscripción en pruebas selectivas destinadas a la conformación de bolsas de trabajo, o a la selección de personal interino o laboral temporal.

V. BONIFICACIONES

Artículo 6.

Se reconoce una bonificación del 50 % del importe de la cuota a favor de las personas interesadas que se encuentren en alguna de estas situaciones:

1. A favor de quienes se encuentren en situación de desempleo. Para poder aplicarse esta bonificación las personas solicitantes deberán acreditar que, en la fecha correspondiente al último día para la presentación de instancias en el proceso selectivo de referencia, se encuentran en situación legal de desempleo y dadas de Alta como demandantes de empleo en Lanbide u otros servicios públicos de empleo.

2. A favor de víctimas de violencia de género. Para la aplicación de esta bonificación, deberá aportarse resolución judicial u orden de protección dictada a favor de la víctima o, en su defecto, informe del Ministerio Fiscal que indique la existencia de indicios de ser víctima de violencia de género, hasta tanto se dicte la orden de protección, o cualquier otra documentación acreditativa de tal condición, de conformidad con la normativa vigente en la materia.

3. 33 % a favor de personas con diversidad funcional. Para la aplicación de esta bonificación deberá aportarse tarjeta acreditativa del grado de discapacidad expedida por la correspondiente Comunidad Autónoma.

4. A favor de miembros de familias monoparentales. Para la aplicación de esta bonificación, deberá acreditarse la pertenencia a una familia monoparental mediante alguno de los siguientes documentos:

– Libro de familia en el que conste una única persona progenitora y los hijos e hijas de ésta.

– Libro de familia en el que consten los hijos y las hijas y sentencia judicial de separación, divorcio o nulidad, o de relaciones paterno/materno filiales, siempre y cuando no se establezcan en las mismas pensiones compensatorias o de alimentos, o, habiéndose establecido se acredite el impago de las mismas mediante sentencia, denuncia o demanda.

– En todo caso, deberá aportarse certificado de empadronamiento familiar que acredite la no convivencia con otro/a progenitor/a o pareja de progenitor/a.

5. Los sujetos pasivos que, en el día en el que finaliza el plazo de presentación de solicitudes, tengan la condición de miembros de familias numerosas conforme a lo establecido en la Ley 40/2003, de 18 de noviembre, de Protección a las Familias Numerosas y demás normativa concordante, gozarán de una bonificación en esta tasa, en los siguientes términos:

– Familias numerosas de categoría general.

– Familias numerosas de categoría especial.

Para la aplicación de esta bonificación deberá aportarse certificado o fotocopia del carné vigente de familia numerosa expedido por el órgano competente.

VII. LIKIDAZIOA ETA DIRU-SARTZEA

7. artikulua.

– Ordenantza honetan araututako tasa autolikidazio-erregimenean eskatuko da.

– Subjektu pasiboek Udal Administrazioak hartarako gaitutako inprimakietan gauzatu beharko dute autolikidazioa, eta baimendutako edozein banku-entitatetan egin beharko dute diru-sarrera hori, izena emateko dagokion eskaera aurkeztu aurretik. Ez da onartuko epez kanpo ordaintzea.

– Tasa hori aurreko paragrafoan adierazitako epean ordaintzen ez bada, ez da onartuko hautatze- probetarako izangaia izatea.

– Izena emateko eskaerarekin batera aurkeztu beharko da, beti, autolikidazioaren kopia, diru-sarrera behar bezala eginda.

– Subjektu pasiboari egotzi ezin zaion kausengatik zergapeko egitatea den jarduera teknikoa eta/edo administratiboa egiten ez denean, bidezkoa izango da dagokion zenbatekoa itzultzea. Beraz, ez da bidezkoa izango inolako itzulketarik egitea, interesatuari egotzi ahal zaizkion kausengatik hautatze-probetatik kanpo geratzen bada.

VIII. TASEN KUDEAKETA

8. artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak bildu eta ikuskatzeari dagokionez, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da. Gauza bera egingo da zergei dagozkien arauhausteak balioztatu eta kasu bakoitzean dagozkien isunak ezarzerakoan.

IX. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

Hori guztia Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen zutailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan agindutakoa betetzearren argitaratzen da, guztiek honen berri izan dezaten eta arau horretan aurreikusitakoak eragina izan dezan.

Aipatutako Foru Arauaren 18.1 artikuluan xedatutakoekin bat, tasa, kuota, tarifa eta ordenantzak finkatzea eta aldatzea onesten zuten erabakien aurka, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenaren dagokion Salaren aurrean administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dute interesatuek bi hilabeteko epe barruan, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

Dena den, eta aipatutako arauak baimentzen duen bezala, interesatuek hautazko errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Gipuzkoako Auzitegi Ekonomiko Administratibo Foralaren aurrean, administrazioarekiko auzitarako bideari ekin aurretik, argitalpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera hasita hilabete bateko epean.

Euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziak antzemanaz gero, euskarazko testuak izango du balioa.

Hernani, 2022ko azaroaren 17a.—M. Isabel Sanchez Perez, Ogasuneko zinegotzi delegatua. (7236)

VII. LIQUIDACIÓN E INGRESO

Artículo 7.

– La tasa regulada en esta Ordenanza se exigirá en régimen de autoliquidación.

– Los sujetos pasivos deberán practicar autoliquidación, en los impresos habilitados al efecto por la Administración Municipal y realizar su ingreso en cualquier entidad bancaria autorizada, antes de presentar la correspondiente solicitud de inscripción, no admitiéndose el pago fuera de plazo.

– La falta de pago de la tasa en el plazo señalado en el párrafo anterior, determinará la inadmisión de la persona aspirante a las pruebas selectivas.

– A la solicitud de inscripción habrá de acompañarse, en todo caso, copia de la autoliquidación, debidamente ingresada.

– Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo, la actividad técnica y/o administrativa que constituye el hecho imponible no se realice, procederá la devolución del importe correspondiente. Por tanto, no procederá devolución alguna en los supuestos de exclusión de las pruebas selectivas por causas imputables a la persona interesada.

VIII. GESTIÓN DE LAS TASAS

Artículo 8.

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de las Tasas reguladas por esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

IX. DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y mantendrá su vigencia mientras no se acuerde su derogación o modificación.

Todo ello se publica en cumplimiento de lo ordenado en el artículo 16.4 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, para general conocimiento y demás efectos previstos en el expresado precepto.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 18.1 de la citada Norma Foral, contra los expresados acuerdos aprobatorios de fijación y modificación de tipos, cuotas, tarifas y Ordenanzas los interesados podrán interponer recurso Contencioso-Administrativo ante la correspondiente Sala del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente hábil al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Ello no obstante y como autoriza el precepto citado, los referidos interesados podrán interponer, con carácter potestativo y previamente a la vía Contencioso-Administrativo Foral de Gipuzkoa en el plazo de un mes contado a partir del siguiente día hábil al de la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de las expresadas publicaciones.

En el caso de que haya discrepancias o incoherencias entre la versión en euskera y castellano prevalecerá la versión en euskera.

Hernani, a 17 noviembre de 2022.—La concejal-delegada de Hacienda, M. Isabel Sanchez Perez. (7236)